

**A**zpeitiko Geltoki zaharra bere sasoi bateko urteetan ezagutu zutenei ez zaie inola ere bururatuko ondoren azalduko dizueguna. Geltokiaren kanpo-itxurak berdintsu segitzen du. Norbaitek "berdintsuegia" dela esango luke akaso eta arrazoi luke. Han ageri diren lurrinezko trenmakinak, merkantzi bagoiak, erlojuak edo kontrolerako makinak ez dira gaur egungo geltokietan aurkitzen; ezta asko bilatuta ere. Geltokian sartu-irten laburra egitea gure gertuko

keen milaka galderei pazientzia handiz erantzunez.

Burdinbidearen Euskal Museoak eskaintzen dituen aukera guztiak Azpeitiko Geltoki zaharraren egoitzan bertan bisita daitezke. Garai batean bidaiariak biltzeko erabili izan zen gelan bilduma interesgarri ugari topa daiteke gaur egun. Adibidez, tren-geltokietan ezinbestekoak ziren erlojuei eskainitakoa guztietarik zaratsuen da. "Jesus Minguez Aguado" izeneko bildumak munduan garrantzitsuenetarikoa den erloju-sorta jasotzea lortu du. RENFEko langilea zen Minguez eta zerbitzutik kanpo geratzen ziren erlojuak konpondu eta biltzeko zuen zaletasunaren ondorio da gaur egun Azpeitian bisita daitekeena. Kronometriak azken bi mendeotan izan duen bilakaera aztertze bide aproposa damaigu: penduludun erlojuetatik hasi eta irratibidezko bulkadako erlojuetaraino. Geltokietako erloju-sorta osatzeko, poltsikozko erloju-bilduma interesgarria ere hortxe bisita daiteke, etengabeko tik-tak eroa entzunez.

Dena dela, Museoaren alderik ikusgarriena lantegi eta hangarrean bisita daitekeena da. Berrogeiren bat ibilgailuk osatzen dute material higikor historikoaren bilduma. Jatorriz Belgikakoa zen tranbia izan ezik, bildumako gainerako piezak Euskadin urteetan izan diren konpainietatik iritsi dira Azpeitira. Gehientsuenak, gainera, ikuskari hutsa izatetik urrun daude, eta alde zuzenetik eskatuz

# Burdinbidearen Euskal Museoa

## Pili Kaltzada\*

Euskal Herriko Historian zehar trenez txango bat proposatzen dizuegu.

Burdinbidearen Euskal Museoak bere atea atek propio zabaldu zizkigun astelehen arratsalde hartan eta han ikusitakoa, trenaren beraren zurrunbiloa bailitzan, burutik kendu ezinik ibili gara geroztik.

eta urruneko Historiari gainbegirada emateko modukoa da; Azpeitiko Geltokia zena gaur egun Burdinbidearen Euskal Museoa baita.

Burdinbidearen Euskal Museoa orain dela 2 urte sortu zen Eusko Jaur-laritzaren laguntzaz. Historian zehar gure lurraldea zeharkatu izan duten trenen aztarnak bildu eta museoan jasotzea izan du helburu nagusia. Museoko bildumak osatzea ez da batere zeregin erraza izan. Oso kasu gutxitan gorde eta zaindu izan da material zaharra, eta ondorioz, berritzeko lanak luzeak eta gogorrak izan dira. Egindako ahalegina, ordea, ez da ezerezean geratu eta gaur egun museoak antolatzen dituen erakustaldiak horren froga garbiak dira. Juanjo Olaizola da orain Museoko arduraduna. Geltokian dauden piezarik ikusgarrienak berak erakutsi zizkigun, trenaren historia batere eza gutzen ez zuen edonork egingo lituz-





**Burdinbidearen Euskal Museoan ikus daitezkeen trenmakinetako hiru**

**Aurrera 104 Zkia. 1-3-0-T**

Lurrinezko trenmakina hau Nasmith Wilson injineroak 1898. urtean Britainia Handian egina da, Elgoibar eta Donostia arteko trenbide esturako. 1929.ean trenbide osora hedatu zen elektrifikazioa, baina bitartean era guztietako treni bultzaka ihardun zuen honek. 1958.ean jubilatuta zuten arte Durango eta Elorrio bitarteko bideetan erabili zen. Ondoren bere galdaratan ur distilatua ekoizteko erabili izan zuten, Oñatira apaingarri gisara eraman zuten arte. Museoan Loiolako Santutegira doan bidea egiteko erabiltzen da gaur egun.



**Bizkargi 3. Bo-Bo**

Brown Boveri enpresa suitzarrak 1928. urtean egina da Eusko Trenbideak Konpainiarako. Trenmakina elektrikoa da eta 80.eko hamarkada arte bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko erabili zen.

**101. Zkia. Bo-Bo**

A.E.G. enpresak 1925.ean Berlinen egina. Donostia eta Hendaia bitarteko bidean aritu zen 1977.ean zerbitzutik kanpo utzi zuten arte. Bere ibilbideko zati batean hirigunea zeharkatu behar zuenez, kanpaia joz ohartarazten zituen oinezkoak. Gipuzkoako Trenbidearen Lagunak elkarteak esku hartu zuen eta gaur egun martxan ikus genezake, Estatu Espainolean zerbitzurik egiten duen trenmakina elektriko zaharrena delarik.



gero, ibilbide historikoak antola daitezke, antzinako bidaiatzeko erak berrituz. Adibidez, Geltoki Zaharretik Loiolako Santutegira doan bidea lurrinezko trenmakinez egiteko aukera paregabea eskaintzen da.

Lerro hauetan azaldu dizueguna Burdinbidearen Euskal Museoan egindako bisitaren oroitzapena baino ez da. Nahi baino laburragoa suertatu zitzaigun arratsalde hartako hitzaspertua eta, horregatik akaso,

espero baino irrika handiagoz gaude hurrengo bisitaren zain.



\* ZETIAZ-Elhuyar